

ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEKO 2025KO LANAK

2025a urte emankorra izan da Enirio-Aralar Mankomunitatean eta 2026. urtearen hasiera honetan atzera begirada bat egin eta 2025ean egindako lanen balorazioa egin nahi izan du Enirio-Aralar Mankomunitateko zuzendaritzak. Aska konponketak, bide konponketak, leize garbiketak, itxitura berriak, landaketen mantendu lanak... askotarikoak izan dira aurten egindako lanak eta jarraian azalduko ditugu nabarmenenak.

Mankomunitateak bere kabuz sustatutako lanen artean, urtero egiten diren mendiko mantenu lanak daude. Hoditeriak, deposituak, harrapalekuak, txabolak, askak, ur hartuneak, iturri mantenu lanak eta abar luze bat. Lan txikiak baino garrantzi handikoak.



Udaran, Ariñate-Arritzagan dagoen bidearen egokitapena eta zubien zahar berritzea egin zen. Buruntzunzin Mendi Elkarteko bazkide eta inguruan abere eta ardiak larratzen dituzten artzain eta ganaduzaleekin elkarlanean burutu den auzolan baten bitartez egin da. Materiala Mankomunitateak jarri du, eskabadora Amezketako udalak eta eskulan guztia auzolanean. Ondorioz 632 m bide txukundu dira eta Arritzagan dauden bi zubi berritu dira.



2026ko lanetan, lankidetza eta auzolana sustatzen jarraitu nahi da mendiko erabiltzaile ezberdinekin eta bide honen hobekuntzarekin jarraitzea espero da.

Bideen mantenu lanekin jarraituta, Amezketa eta Enirio Aralar komunikatzen duen bideko bi kurbatan, hormigoitze lanak egin dira. Materiala kasu honetan, Amezketako Udalak jarri du eta esku lana auzolanean egin da Amezketako herrikide eta Enirio Aralarko ganaduzale eta mendizaleekin.






2024an martxan jarri zen Sarnaren aurkako plan sanitarioari jarraipena emanez, 2025ean ere Enirio-Aralarren larratu duten artzain guztiek 2 tratamendu egin zizkien ardi bakoitzari irailean. Nabarmentzekoa da sarnaren aurkako kanpaña honetan ematen diren pausoak artzainekin koordinatuta eta eman beharreko tratamenduak adostuz ari garela eta honek emaitza oso onak ekarri ditu, 2 urtetan, egoera oso txarra izatetik sarna guztia ia ezabatzerara pasaz. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera kostearen 2/3 diruz laguntzea erabaki zen. 1/3 Enirio Aralar Mankomunitateak eta 1/3 Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainontzeko 1/3 artzainek. Guztira, 42 artzainek, 15.618 ardi tratatu dituzte.




Txabolen instalazio elektrikoen inguruan diagnostiko bat ere burutu da. 37 txabolen diagnostikoa egin da, hauetatik 35 artzantzara bideratuta daudelarik eta 2 mendizale eta espeleologia elkarteetara. Zaharrenak, 90.hamarkadan egindako instalakuntzak dira eta gehiengoa 2000-2007 urteetan egindakoak. Egungo egoera ezagutu eta gaur egungo beharrak ase ahal izateko eman beharreko pausoak zehaztea du helburu diagnostiko honek. Modu honetan, txaboletako erabiltzaileen egoera hobetu nahi da eta mendiko gazta egiten duten artzainen baliabideak hobetu.




Azkeneko urteetan egin den modura, Enirio Aralar Mankomunitatea Eusko Jaurlaritzako 2025-2026 Natur Ondareko laguntzetara aurkeztu da hurrengo lanekin:

1. Salingain-Zotaleta ingurua itxi eta landaketa baten bitartez higadura eta abereen erortzeak sahisteko lanak egitea. 2025ean hesolen gerturatzea egin da eta 2026 itxitura eta landaketa egingo da. (2 ha gutxi gorabehera)



2. Igaratza eta Oiduiko larreen azterketarako erabiltzen ziren azpiegiturak aprobetxatuz baso landaketak egingo dira. (0,5 ha)



3. Kobazuloek garrantzi handia dute geologia, hidrologia, biologia, arkeologia kultura eta ingurumenari dagokionez. Habitat bereziak eskaintzen dituzte, uraren zirkulazioa erregulatzen laguntzen dute, giza historiaren aztarnak gordetzen dituzte eta eremu naturalen osagai garrantzitsuak dira. Hau kontuan izanik, azkeneko urteetan kobazuloen garbiketa burutu da auzolanean Felix Ugarte Elkarte eta parte hartu duten herrikideekin. 2025ean, Oiduiko leizearen garbiketaren faseetako bat burutu da, kanpoko zikinkeria garbituz. 2026ean barruko lanekin jarraitzea aurreikusten da.



Ateratako zaborraren zenbatekoak :

- 400kg kristalezko botila
- 100kg metal
- 20kg plastiko
- 25 kg pila
- 200 kg errefuxa
- 50kg amianto (Amiantoaren kudeaketan autorizazioa duen enpresa batekin burutu zen)

4. Aska inguruetan higadura arazo handiak sortzen dira uraren, haizearen eta ganaduaren joan etorrien ondorioz. 5 asken inguruak egokitze lanak aurreikusi ditu Mankomunitateak ingurumen diru-laguntza hauetan eta lanen aldeko ebazpena jaso berri dugu, beraz, eguraldiak uzten duenean lan hauek aurrera eramatea aurreikusten da.



ALOTZA 1



LIZTORRE



ALOTZA 2



IRAZUSTA



DEASKIN

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Goilarre programaren baitan berriz beste hainbat lan egin ditugu.

Programa honen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak 211.000 eurotako ekarpena egin behar du eta Enirio-aralar Mankomunitateak 84.500 eurotako. 2025. urtean Mankomunitateak 84.500 euro jarri baditu ere, Aldundiak 86.000 euroko ekarpena egin du. Gurea bezalako erakunde txiki batentzat maila honetako kopurua jartzeak dakarren esfortzua azpimarratu nahiko genuke. Bi kopuru horiei, 2024an Mankomunitateak jarritako 84.500 euroak gehitu eta hurrengo lanak egin dira:

LAN MOTA	DIRU KOPURUA
Etitzegi txabola berritzea	76.281,83€
Etitzegiko txabolaren berritzeko lanak eman dira.	
Xehaketa astunak	9.793,82€
13,18 ha-ren xehaketa egin dira Gorokintxu-Esnaurreta-Intzentsao eta Oiduko eremuetan.	
Txaboletako lanak	105.885,58€
Pagabeko: Ekonomia berria eta teilatuko lanak	
Beltzulegi: Lehio berriak eta teilatuko lanak	
Buruntzunzin: Ekonomia berria	
Zotaleta 3: Eguzki plakentzako bateri berriak	
Doniturrieta Azpikoa I: Eguzki plankentzako bateri berriak	
Doniturrieta Garakoa II: Ekonomia berria	
Beaskin: Ekonomia berria	
Urruzti: Eskorta egiteko materiala	
Elutseta goikoa: Eskorta berritzeko materiala	
Elutseta azpikoa: Eskorta berritzeko materiala	
Goroskintxu: Eskorta berritzeko materiala	
Koaurre: Eskorta berritzeko materiala eta ekonomia berria	
Enirio: Eskorta berritzeko materiala	



Mallotako itxitura	22.918,67€
---------------------------	-------------------

Enirio Aralar eta Nafarroko muga zatitzen dituen itxitura. Artubitik hasi eta Elizkaitz mendi tontor bitarteko itxituraren zaharberritzea eman da. 1.500 metroko luzeran.

Elordiko harrapalekuko lanak	3.244,07€
-------------------------------------	------------------

Elordi harrapalekuko basea homogenizatzea eta higadura sortutako eremuen txukuntze lanak egin dira auzolanean.

GUZTIRA 218.123,97€

Espero dugu, aurtengo ekitaldian eta hurrengoetan, Aldundiaren ekarpen ekonomikoa sinatutako akordioetan ezarritakora iritsiko dela, horrek, elkarlanean, guztion onerako hobekuntza gehiago egiteko aukera ekarriko baitu. Esan bezala, Aldundiak hartutako konpromisoak betetzen baditu, azken 2 urte hauetan hartutako bideari jarraipena eman ahal izango diogu.





Bukatzeko, Enirio Aralar Mankomunitateak esker onak eman naiz dizkio auzolanetan parte hartu duten ganaduzale, herrikide eta elkarte guztiei. 2025 urtean elkarlana sustatu da helburu ezberdinak lortzeko. Hurrengo taulan auzolanen zerrenda ageri da:

ZENBº	AUZOLANA	PERTSONAK
1	MALLOAK ITXITURA (1.400M)	3 + kontratista
2	MALLOAK MATERIALA BANATU (BEOIN-ALDAON BITARTE)	11
3	ELORDIKO HARRAPALEKUA (ITXITURA GOGORTU)	4
4	ELORDIKO HARRAPALEKUA (BASEA KONPONDU)	3+ makinaria alkilatu
5	IGARATZAKO HARRAPALEKUA KONPONDU	2
6	SALTARRI HARRAPALEKUKO ATEAK KONPONDU	2
7	ASKETAN PUTREEN BAINUAK EKIDETEKO BARRERA METALIKOAK	2
8	BASAIZPURUKO LANDAKETAREN ITXITURAREN KONPONKETA (800 M)	23
9	ARIÑATE-ARRITZAGA (BIDEA ETA ZUBIEN ZAHAR BERRITZEA)	10
10	OIDUIKO LEIZE GARBIKETA	12
11	ATASKATUTA GERATUTAKO KAMIOIA ATERATZEA	3
12	UZKUITIKO ITXITURA KENTZEA	3
13	BURUNTZUZIN ASKAREN BASEA	3
14	ETITZEGIKO TXABOLETAKO LANAK	8
15	IGARATZAKO ASKAKO TUBOA FIJATZEA	2
16	EHUN MILATAKO MATERIALA JASOTZEA	7
17	AMEZKETA ENIRIO ARALARKO BIDEAN HORMIGONATZE LANAK	12

BASAIZPURUKO LANDAKETAREN ITXIRURAREN KONPONKETA



ARIÑATE-ARRITZAGA LANEN BARRUAN BERRITUTAKO ZUBIA



OIDUIKO LEIZEAREN GARBIKETA



BURUNTZUNZIN GOIKO ASKAREN TXUKUNKETA



AMEZKETA ENIRIO-ARALAR BIDEAREN HORMIGONATZEA



EHUN MILATAKO MATERIALA UTZI ETA JASOTZEA

